

Auto konpartituan (ipuin bat)

Bila etortzen zaizkion bitartean mp3 eta liburua aldi berean aditu eta irakurri ditu. Hotz da. Denboraz iristea gogoko izaten du, kale horretan autoek ez dutelako gelditzeko leku handirik. Berari itxarotea ez zaio inporta, Henryk Góreckiren eta Paul Celanen konpainia onean baldin bada, baina gaur, motxila pisutsua arretaz lurrean utzita ere, itxaronaldia luzetsi du. Lehen ikasturtean bere autoan, bakarrik, joaten zen fakultatera eta aparkatzea eromen hutsa zen.

Aurten baina, bi ikaskiderekin autoa eramatearen ardura txandakatzea erabaki du, bakoitzak aste batez. Inondik inora erosoagoa eta ekologikoagoa, zeren eta irakasle batek, elur ala eguzki bizikletaz datorrenak, esan ohi dienez, oraingo ikasleek bla, bla, bla... Eta arrazoia ez zaio falta, ikas zentro batera baino gehiago Volkswagen fabrikara doazelako inpresioa ulergarria da. Arkitekturak ere ez du irudi humanoagoa ematera laguntzen. Goizeroko sermoia izaten da hori, Zientzia Politikoko irakasle horrek beti aurkitzen du zertaz kexatu. Dibertigarria da, bere modura. Hasieran. Azkenean, bat-bederak bere golkorako pentsatzen du iritzi zutabe bat behingoz eman diezaiotela egunkariaren batean eta has dadila eskolarekin. Praktikoak dira ikasleak. Behin batek galdetu zion kamiseta baino janzen ez duten gazteen kontrako diatriba azterketan sartuko ote zen. Egun horretan ez zen jada eskolarik eman.

Hala ere, azterketa nolakoa izan daitekeen ez da broma. Ospetsua da ikasleei kurtsuan zehar agintzen dizkien lanengatik. Hausnarketa lanak deitzen dizkie, eta batzuetan idatziz eskatzen ditu, gai xebleenei buruz, besteetan ahoz, eta are inoiz praktikara eramate txikiak ere, berak esperientzia nanopolitikoak izendatzen dituenak. Horregatik ez



Angel Erro

Apalategi

Basterrereña

dago azterketan zer galde dezakeen jakiterik. Joan den astean klasea bost multzotan banatu zuen eta talde bakoitzari zerbait ezberdina eskatu zion. Gaur bertan aurkezteko: Al Goreren sinesgarritasuna eta beraren loditze prozesu deigarriaren arteko erlazio posible guztiak sakonki zerrendatu. Ikaskide guztiak, edo gutxienez bi heren, terrorismoa bermatzeagatik kartzelaratzeko auto bat idatzi, Garzon epaiaren argumentuak erabilia. Norberto Bobbioen *Eskubideen Denbora* liburua goiti beheiti berridatzi ondoko premisei jarraituta, a) Bobbio emakumezkoa izan balitz, b) Bobbio komunista izan balitz, c) Bobbio emakumezko komunista euskaldun bat izan balitz. ETaren azken agiriaren testu iruzkin bat, ahal dela, erredaktatu duenak irakaskuntza sistema zein ikasturtetan abandonatu zuen zehaztuta. Nanoesperientzia bat ere agindu zuen, ohi bezala, eskutitz lakratu batean, ikasle gutxi batzuek jaso dutena, elkarren gordean. Horretarako, hain zuzen, Angelek bizkar zorroa bete du beharrezko guztiaz.

Autoa azkenik etorri da. Bertan, aurreko eserleketan, Ur eta Josi doaz eroso jarrita, hitz eta pitz. Atsegin joan da unibertsitaterainoko bidea. Eguna epelduz doa. Hezkuntza Fisikoko ikasleak campusean korrika egiten ikus daitezke. Klasikoak dioenez, orok erakusten du, mundu honetaz dugun ezagutzagatik, egunen batean beraien izter miragarriek lurra-zen azpian hartuko dutela atsedean. Urrek atzerako ispilitik begiratu du zerbait esatera

balihoa bezala edo hemendik gutxira gertatu beharrekoa baleki bezala. Angelek egiaztatu du motxilatik ez dagoela kalashnikovaren atalik, ez beste deus, agerian. Ez da horratik lasaitu.

Liburutegiko erloju-raino igo artean ez zaio gorputz osoaren dardarizoa joanen, eta agian orduan ere ez.

(To be continued?) ■



Ur eta Josi doaz eroso jarrita autoan, hitz eta pitz. (...)

Urrek atzerako ispilitik begiratu du zerbait esatera balihoa

bezala edo hemendik gutxira gertatu beharrekoa baleki

bezala. Angelek egiaztatu du motxilatik ez dagoela

kalashnikovaren atalik, ez beste deus, agerian.

Ez da horratik lasaitu

